

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	URTXINTXA ESKOLA GIPUZKOA
2. Sektorea:	Aisialdia eta Hizkuntza Normalizazioa
3. Langile kopurua:	15-20
4. Webgunea:	https://www.urtxintxa.eus/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Gipuzkoako Urtxintxa aisialdiko heziketa esparruan dinamizazioak, formazioa eta aholkularitza eskaintzen dituen elkarte da.</p> <p>Irabazi asmorik gabeko elkarte honek 1987an hasi zuen bere ibilbidea aisialdiko hezitzaileak formatzen. Geroago, haur eta gazteei zuzendutako egitasmoak gauzaten hasi zen. Gaur egun, hizkuntza normalizazio, argitalpen eta aholkularitza esparrura zabaldua du bere jarduna.</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	ASIER GOROSTEGI ALIRI
Helbide elektronikoa:	asier.gorostegi@urtxintxa.eus
Telefonoa:	943270033

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Arrokaundieta aterpeko udalekuetako informazio bilerak Udalekuen argazkitegia: https://www.urtxintxa.eus/argazkiak/pirata-udalekuak-2022-mediateka/
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	Gure aterpean (Arrokaundieta aterpea) antolatzen ditugun udalekuen informazioa bilerak egiten ditugu udalekuak hasi aurretik. Normalean ekainean bi bilera izaten dira, bat Nafarroan eta bestea Gipuzkoan, Udalekuetako parte hartzaileen jaioterrian arabera bilera tokiak erabakitzen ditugu. Bilera hauek, urte luzez, bi hizkuntzatan egin izan ditugu, baina 2021eko udan berrikuntza bat sartu genuen; bilera bat egin beharrean, bi bilera egitera pasa ginen herri bakoitzean. Lehenenengo EUSKARA HUTSEAN izaten da eta bigarrena EUSKARA/GAZTELANIAZ izaten da. Hizkuntza normalizazioan aritzen den elkarteak izanik, garrantzitsua ikusten genuen euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzea. Bi hizkuntzatan egindako bileretan, normalean, denbora aldetik Gaztelania gailentzen zen. Horregatik, Euskara hutseko bilera antolatzen hasi ginen eta bi urte hauetako balorazioa oso positiboa da. Gainera, neurri honek beste aukera ematen digu. Bilera hauetan erabiltzen dugun material guztia euskara hutsean aurkezten dugu. Horrela, bi hizkuntzatakako bileran itzulpena guk egingo genuke eta bilera honetako parte hartzaileentzako ere euskararako hurbilpen bat izan daiteke.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

*Bilerara etortzeko bete beharreko galdetegia.

Bilera eguna eta ordua aukeratzeko sakatu [HEMEN](#).

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA